- 5b) Oinarri-plakaren eta txartel grafikoaren artean.
- 5c) Haizagailuaren eta soinu-txartelaren artean.
- 5d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira, zenbat eta masilla gehiago, hainbat hobe.

6 ZER DIRA “DUAL CORE” ETA “CUAD CORE”

- 6a) Nukleo anizkuna duten mikroprozesadoreak.
- 6b) Prozesadore modelo jakin batzuk, Applek bakarrik egiten dituenak.
- 6c) RAM memoria mota batzuk
- 6d) Txartel grafikoak overclocking egiteko ezagutzen diren bi moduak.

7 SISTEMA ERAGILEAREN NUKLEOA/K...

- 7a) Modu gainbegiralean exekutatzen den prozesu bat baino ez da.
- 7b) Sistemaren programen kodea du.
- 7c) Ez du sekula mikroprozesadoreak exekutatzen.
- 7d) Beti dago memoria nagusian.

8 ZER GERTATZEN DA ERABILTZAILE MODUAN DAGOEN PROZESU BAT LEHENTASUNAK DITUEN ATAZA BAT EXEKUTATZEN SAIATZEN BADA?

- 8a) Prozesua eten egiten da.
- 8b) Salbuespen bat gertatzen da.
- 8c) Sistemari dei bat egiten zaio.
- 8d) "Avatar" delako bat.

9 SISTEMA ERAGILEETAN, ZER DA HARI BAT EDO THREAD BAT?

- 9a) Informatikan biltegitratzeko dagoen gutxieneko unitatea.
- 9b) Exekutatzeko oinarritzko unitatea. Bere programa-kontagailua, PUZ erregistroak eta pila ditu.
- 9c) Disko gogorra eta mikroprozesadorea elkarrekin komunikatzen diren bidea.
- 9d) Etendura mota bat.

10 SISTEMA ERAGILEETAN, SEMAFOROAK/EK...

- 10a) Erabat ezabatzen dute elkar-blokeaketaren arazoa.
- 10b) Askoz potentzia handiagokoak dira baldintzapeko eskualde kritikoak baino.
- 10c) Bi eragiketa publiko dituzte (wait eta signal)
- 10d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

11 ZER SORTU DA MEMORIAREN KANPO-ZATIKETAREN ARAZOA KONPONTZEKO ETA LEKU LIBREAREN KUDEAKETA ERRAZTEKO?

- 11a) Orrikapena.
- 11b) Disko gogorra.
- 11c) Pen-drivea
- 11d) Prozesuen araberako kudeaketa.

12 PROZESUEN ARTEKO KOMUNIKAZIO-MEKANISMOA, SISTEMA LOKAL EDO URRUNEKO SISTEMEN BIDEZ EXEKUTATZEN DIREN PROZESUEN NORANZKO BIKO KOMUNIKAZIOA AHALBIDETZEN DUENA, HONAKO HAU DA:

- 12a) Half dúplexa.
- 12b) Sare-kablea.
- 12c) Disko gogorra
- 12d) Socketa.

13 HONAKO HAUETATIK, ZEIN EZ DA SISTEMA INFORMATIKOEN BIZI-ZIKLOAREN EREdua?

- 13a) Kaskada
- 13b) Kodifikatzea eta probatzea
- 13c) Inkrementala.
- 13d) Espirala.

14 SOFTWAREAREN BIZI-ZIKLO BATEN FUNTZIO NAGUSIEN ARTEAN HAUEK DAUDE:

- 14a) Jakitea jendeak noiz utzi behar dion software hori erabiltzeari.
- 14b) Garatu nahi den produktuaren kostua ahalik eta ondoen zehaztea.
- 14c) Softwarearen garapenean eta bilakaeran dauden faseen eta prozesuen hurrenkera zehaztea.
- 14d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

15 HAUEK DIRA KASKADA-EREDU BATEAN AGERTZEN DIREN FASEAK EDO ETAPAK:

- 15a) Azterketa ((Hw. eta Sw.), diseinua (aurretikoa eta zehatza), kodifikazioa eta probak, ustiapena eta mantentze-lanak.
- 15b) Urrats hauek planifikatzea: helburuak zehaztea, aukerak ebaluatzea eta murrizketak berrikustea.
- 15c) Hasierako fasea, fase ertaina, azken fasea.
- 15d) Fase inkrementala, fase espirala eta proba-errore fasea.

16 SOFTWAREA GARATZEKO METODOLOGIETAN, HONELA DEFINITZEN DA METODOLOGIA:

- 16a) Garatzaileei software berria egiten laguntzen dien prozedura, teknika, tresna eta dokumentuen multzoa.
- 16b) Teknika baten automatizazioa.
- 16c) Ataza bat exekutatzeko era.
- 16d) Prozedura bat jarraitzearen emaitza.

17 ONDORENGOETATIK, ZEIN EZ DA SOFTWAREA GARATZEKO METODOLOGIA BAT?

- 17a) Garapen egituratua.
- 17b) Muturreko programazioa (Metodologia bizkorra)
- 17c) Objektuari bideratutako garapena
- 17d) Programazio geldoa.

18 UML LENGOAIA HONEN ADIBIDE BAT DA:

- 18a) Garapen egituratua.
- 18b) Muturreko programazioa (Metodologia bizkorra)
- 18c) Objektuari bideratutako garapena
- 18d) Programazio geldoa.

19 HIRU ESKEMA DITUEN DBKS-REN ARKITEKTURAREN BARRUAN, ZERI ESATEN ZAIO ESKEMA KONTZEPTUALA?

- 19a) Erabiltzaile-taldearen ikuspegiaren deskribapena.
- 19b) Erabiltzaile-komunitate batentzako datu-base oso baten deskribapena.
- 19c) Datu-basearen biltegitratze fisikoaren egituraren deskribapena.
- 19d) Datu-basea biltegitratuko den tokiaren deskribapena.

20 ERAKUNDE-ERLAZIOA EREDUAK HONELAKO DATUAK DESKRIBATZEN DITU...

- 20a) Taulak eta geziak.
- 20b) Erakundeak, gakoak eta multzoak.
- 20c) Erakundeak, estekak eta atributuak.
- 20d) Erakundeak, erlazioak eta lehen mailako gakoak.

21 ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA AURKIBIDEAK DBKS BATEAN?

- 21a) Erregistroak berreskuratzeko abiadura handitzeko, bilaketa-baldintza jakin batzuk emanda.
- 21b) Taula bateko erregistro bakoitzari zenbakia ipintzeko.
- 21c) Erregistro bakoitza erregistro bakartzat identifikatzeko.
- 21d) Datu berriak sartzea errazteko, datu horiek sartzeko irizpideak murrizketen bidez definitu ondoren.

22 ERLAZIO BATEN LEHEN MAILAKO GAKOA...

- 22a) kandidatu-gakoa ez dira gauza bera.
- 22b) ezin da izan erlazioaren kandidatu-gakoetariko bat
- 22c) Erlazioan tuploak identifikatzen dituzten balioak dituen kandidatu-gakoa da.
- 22d) Ezin du letrarik izan, zenbakiak izan ditzake bakarrik.

23 DATUAK NORMALIZATZEKO HELBURU NAGUSIA HAU DA:

- 23a) Datuak sartzean, ezabatzean eta eguneratzean erredundantzia eta arazoak gutxitzea.
- 23b) Baimenik ez duten erabiltzaileek datuetarako sarbidea izatea saihestea.
- 23c) Erakunde bati buruzko informazioa ematen duten eremuen balio-bilduma lortzea.
- 23d) Barne-eskema aldatzeko gai izatea, eskema kontzeptuala aldatu beharrik izan gabe.

24 NOLA DEITZEN DIRA GERTAKARI JAKIN BATZUEK AUTOMATIKOKI AKTIBATZEN DITUZTEN EKINTZAK ZEHAZTEN DITUZTEN ARAUAK?

- 24a) Ekintzaileak.
- 24b) Disparadoreak.
- 24c) Eragingailuak.
- 24d) Adierazleak.

**25 ZER EGITEN DU SQL SENTENTZIA HONEK?:
"SELECT * FROM KIDEAK"**

- 25a) Erregistroren batean * duten kideen datuak lortzen ditu.
- 25b) KIDEAK taulako eduki guztiak ezabatzen ditu, baina ez du taula ezabatzen.
- 25c) KIDEAK taulako eduki osoa lortzen du.
- 25d) KIDEAK taulako eduki guztiak ezabatzen ditu, eta gero taula bera ezabatzen du.

**26 ZER EGITEN DU SQL SENTENTZIA HONEK DBEKS GEHIENETAN?:
" SELECT IZENBURUA FROM LIBURUAK WHERE IZENBURUA LIKE '%DE%' "**

- 26a) Ez da sententzia balioduna inolako **DBEKS**tan eta errorea emango du.
- 26b) Izenbururik ez duten liburu guztiak bilatzen ditu.
- 26c) Izenburua alemanez duten liburu guztiak bilatzen ditu.
- 26d) Izenburuan "DE" duten liburu guztiak bilatzen ditu.

27 SQL ESTANDARRAREN ARABERA, "CURRENT_TIMESTAMP" FUNTZIO INTEGRATUAK HAU ITZULTZEN DU:

- 27a) Uneko data eta ordua.
- 27b) Bakarrik uneko ordua.
- 27c) Bakarrik uneko data.
- 27d) Hiru horietatik bakarra ere ez da zuzena; funtzio hori ez dago estandarrean.

28 ZER DA BILTEGIRATUTAKO PROZEDURA BAT?

- 28a) Jardunbide onen multzo bat datu-base bat diseinatzeko.
- 28b) Datu mota bat, adibidez "CHAR".
- 28c) Sententzia-sekuentzia bat da. Izen bat ematen zaio gero berriro erabili ahal izateko.
- 28d) Sententzia-sekuentzia bat da. Izen bat ematen zaio eta emaitza bat itzultzen du.

29 ZER DA "TRIGGER" BAT?

- 29a) Datu-basearen taula batzuetan kontsultatzen duen sententzia bat.
- 29b) Datu mota bat, adibidez "INTEGER".
- 29c) Sententzia-sekuentzia bat da. Izen bat ematen zaio eta emaitza bat itzultzen du.
- 29d) Gertakari jakin baten aurretik edo ondoren automatikoki exekututzen den prozedura bat da.

30 ESAN DEZAKEGU PL/SQL HONAKO HAUETAKO BATEN LENGOAIA DELA:

- 30a) Microsoft
- 30b) ORACLE
- 30c) SQL Server
- 30d) IBM

31 WINDOWS 7AN HOBEKUNTZA ASKO AURKITU AHAL DITUGU, BAINA NABARMENDU DEZAKEGU...

- 31a) Jadanik ez duela ataza-barrarik.
- 31b) Bi zakarrontzi dituela.
- 31c) Erabiltzaileek edozein motatako fitxategiak gordetzeko leku handiagoa dutela.
- 31d) Ia ez dago hardware eta softwarearen arteko gatazkarik.

32 WINDOWS 7REN ATAZA-BARRAREN BERRITASUNETAKO BAT HAU DA:

- 32a) Aukera ematen du edozein programa bertan kokatzeko, programan klik egin eta barrara eramanda.
- 32b) Jadanik ez dago ataza-barrarik.
- 32c) Kolorez alda daiteke saio hasi duen erabiltzailearen arabera.
- 32d) Erabiltzaileak nahi duen tokian koka daiteke.

33 WINDOWS 7K DUEN EZAUGARRI BERRI BAT "WINDOWS TOUCH" DA; ZERTARAKO DA?

- 33a) Lehen eskuragarri ez zeuden administrazio aurreratuko aukerak "ukitu" ahal ditugu orain.
- 33b) Asmo txarreko erabiltzaileak ekiporako sarbidea izatea galarazten du.
- 33c) Erabiltzailearekin interakzio erraza izateko aukera eskaintzen du, ukituzko pantailaren bidez.
- 33d) Guraso-kontrolako funtzioak egin ahal dira Internetera sartzerakoan.

34 WINDOWS 7KO KONTROL-PANELEAN, "SISTEMA ETA SEGURTASUNA" KATEGORIAREN BARRUAN, HAU AURKITUKO DUGU:

- 34a) Erabiltzaileen kontuak.
- 34b) Windows-en firewall-a.
- 34c) programak eta ezaugarriak.
- 34d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

35 WINDOWS 7AN SAIOA ADMINISTRATZAILE-BAIMENAK DITUEN KONTU BATEKIN HASTEN BADUGU, ETA KONTROL-PANELETIK "ERABILTZAILE-KONTU"ETARA SARTZEN BAGARA, HAU EGIN AHALKO DUGU:

- 35a) Erabiltzaile-kontuen pasahitzak aldatu.
- 35b) Saio-hasieran agertzen den irudia aldatu.
- 35c) Erabiltzaile-kontuen izenak aldatu.
- 35d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36 ZER DIRA "GADGET"AK WINDOWS 7-AN?

- 36a) Testu-dokumentuak.
- 36b) Gogoko ditugun programetarako lasterbideak.
- 36c) Funtzio jakin bat exekutatzeko garatutako aplikazio txiki batzuk.
- 36d) Biltegi bat da, eta bertan edozein fitxategi mota gorde daiteke.

37 WINDOWS SERVER 2008K IDENTIFIKATUTAKO SAREAK MOTA HAUETAKO BATEKOAK DIRA:

- 37a) Sare segurua eta sare ez segurua.
- 37b) Sare korporatiboa eta sare ez korporatiboa.
- 37c) Laneko sarea, etxeko sarea eta lan seguruko talde-sarea.
- 37d) Domeinu-sarea, sare pribatua eta sare publikoa.

38 WINDOWS SERVER 2008 ERABILITA, ACTIVE DIRECTORY DOMEINUEK HONELA FUNTZIONATU AHAL DUTE:

- 38a) Domeinu-kontrolatzaile gabe.
- 38b) Domeinu-kontrolatzaile bakar batekin funtzionatu ahal dute, baina gomendagarria da bat baino gehiago jartzea.
- 38c) Domeinu-kontrolatzaile bakar batekin funtzionatzen dute, ezinezkoa baita bat baino gehiago izatea domeinu berean.
- 38d) Gehienez ere bi domeinu-kontrolatzaile jar daitezke domeinu bakoitzean.

39 WINDOWS SERVER 2008K IZEN-EBAZPEN SISTEMA HAU ERABILTZEKO AUKERA EMATEN DU:

- 39a) Domeinu-izenen sistema (DNS)
- 39b) Windowsen Internet-izenen zerbitzua (WINS)
- 39c) Esteken tokiko zabaltze anizkuneko izen-ebazpena (LLMNR)
- 39d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

40 ZER DA ACTIVE DIRECTORY DOMEINU BAT?

- 40a) Partekatutako fitxategiak kudeatzen dituen zerbitzaria da.
- 40b) Direktorio komuneko datu-basea duen ekipo-multzo bat da; sare pribatu batean edo Interneten egon daiteke.
- 40c) Sare batean ekipo bat bakartzat identifikatzen duen izena da, eta horregatik ezin da errepikatu sare horretan.
- 40d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

41 DOMEINU BATEN ADMINISTRATZAILEAK BAGARA, ETA ERABILTZAILE BERRI BATI ALTA EMAN BEHAR BADIOGU, NORA JOANGO GARA?

- 41a) Erabiltzaile horren makinara eta tokiko kontu bat sortuko diogu.
- 41b) Kontrol-panela, Erabiltzaile-kontuak, Erabiltzaile berria gehitu.
- 41c) Administrazio-tresnak, Active Directory erabiltzaileak eta ekipoak.
- 41d) Ez dago alta eman beharrik. Saioa hasten denean, erabiltzaile-kontua automatikoki sortzen da.

42 ZERTARAKO BALIO DUTE ACTIVE DIRECTORY-KO ANTOLAMENDU-UNITATEAK?

- 42a) Objektuak antolatzeko, eremu jakin baten barruan talde-direktibak ezartzeko, etab.
- 42b) Fitxategiak eta karpetak ahalik eta ondoen antolatzeko.
- 42c) Erabiltzaile-kontuak eta domeinuaren ekipo-kontuak administratzeko.
- 42d) Urruneko moduan beste ekipo batzuetarako sarbidea izateko.

43 EXCHANGE SERVER 2010EKO ZEIN EDIZIO EROSI AHAL DUGU?

- 43a) Basic eta Advanced.
- 43b) Standard eta Enterprise.
- 43c) Home eta Enterprise.
- 43d) Basic eta Premium.

44 EXCHANGE SERVER 2010EK DAUZKAN SPAM ETA BIRUSEN KONTRAKO GAITASUNEN ARTEAN HAUEK DAUDE:

- 44a) Konexioak iragaztea.
- 44b) Edukiak iragaztea.
- 44c) IPren erreputazio-zerbitzua.
- 44d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

45 EXCHANGE SERVER 2010-EAN, NON BILTEGIRATZEN DITU POSTA-HELBIDEAK, BANAKETA-TALDEAK ETA BESTE BALIABIDE BATZUK?

- 45a) Active Directory delakoak.
- 45b) File Server delakoak.
- 45c) Print Server delakoak.
- 45d) DMZ delakoak.

46 ERAKUNDEAN DAGOENKO BALDIN BADAGO EXCHANGE 2003 EDO EXCHANGE 2007, ETA EXCHANGE 2010 ERABILI NAHI BADUGU...

- 46a) Lehendik dagoen makina ezin da eguneratu. Exchange 2010 Hardware berri batean instalatu behar da, eta gero datuen migrazioa egin.
- 46b) Dagoen zerbitzarian bertan eguneratze bat egin daiteke, eta zerbitzua ordubete baino gehiago eten behar izan gabe, Exchange 2010ek behar bezala funtzionatuko du.
- 46c) Ezin da Exchange 2010era pasatu uneko datu guztiak galdu gabe; instalazio berria egin behar da eta hutsetik hasi.
- 46d) Aldaketa urrats bakar batean egiten da.

47 KONTU EGIN EXCHANGE SERVER 2010 INSTALATU DUGULA, ROL JAKIN BATZUEKIN. GERO:

- 47a) Ezingo dugu beste rolik gehitu, baina lehenagotik dauzkagunak aldatu bai.
- 47b) Rolak desinstalatu ahal izango ditugu, baina beste rolik gehitu ez, eta lehenagotik dauzkagunak aldatu ere ez.
- 47c) Rolak gehitu, aldatu edo desinstalatu ahali zango ditugu.
- 47d) Ezingo dugu rolik gehitu, aldatu edo desinstalatu.

48 EXCHANTE 2010 SERVER-EK NON GORDE DEZAKE INFORMAZIOA?

- 48a) Active Directory Data Store.
- 48b) Exchange Server Store.
- 48c) Exchange Server Queues.
- 48d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

49 HITZ EGIN DEZAGUN SAREEI BURUZ. ZER DA SARE-PROTOKOLO BAT?

- 49a) Elementu fisiko bat da, sare informatikoetan oso ohikoa, eta helbideratzeaz arduratzen da.
- 49b) OSI ereduko geruzetako bat.
- 49c) Makinen artean datuak trukatzeko erabiltzen den arau-multzoa.
- 49d) Kable bat da, ez du apantailamendurik eta ekipoak sarera konektatzeko erabiltzen da.

50 OSI EREDUAREN ZEIN GERUZATAKOA DA TCP PROTOKOLOA?

- 50a) Datu-loturarako geruzakoa.
- 50b) Sareko geruzakoa.
- 50c) Aplikazioko geruzakoa.
- 50d) Garraioko geruzakoa.

51 ONDORENGOETATIK, ZEIN EZ DA BALIOZKO IP (V4) HELBIDE BAT?

- 51a) 192.168.10.25
- 51b) 172.16.98.247
- 51c) 192.274.128.255
- 51d) 10.10.10.10

52 OSI EREDUAN, ZEIN DA 2. GERUZARI EDO DATU-LOTURARAKO GERUZARI DAGOKION IDENTIFIKATZAILEA?

- 52a) IP helbidea.
- 52b) MAC helbidea.
- 52c) Active Directory delakoa.
- 52d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

53 ROUTER-AK ZERTARAKO DIRA BATEZ ERE?

- 53a) Datu-sare baten barruan, paketeak nodoen artean transmititzeko edo "erruteatzeko".
- 53b) Interneterako sarbidea emateko.
- 53c) Korrante elektrikoa erortzen denean erorketa horrek ez dezan eraginik izan datu-sareko dispositiboetan.
- 53d) Datu-sareko erabiltzaileen kontuak kudeatzeko.

54 TXIRIKORDATURIKO PARE BIDEZKO KABLEATUA HAINBAT MAILATAN DAGO SAILKATURIK. ZEIN DA KALITATERIK ONENEKOA ETA, HORTAZ, ABIADURARIK HANDIENA JASATEN DUENA?

- 54a) 1. mailakoa.
- 54b) 6. mailakoa.
- 54c) 0. mailakoa.
- 54d) 3. mailakoa.

55 ONDORENGOETATIK, ZEIN EZ DA SEGURTASUN INFORMATIKOAREN HELBURU NAGUSIETAKO BAT?

- 55a) Konfidentziasuna.
- 55b) Erabilgarritasuna.
- 55c) Ekintzatasuna.
- 55d) Integritatea.

56 HACKERRAK...

- 56a) Informatikako adituak dira, eta sistemen ahuluneak ezagutu nahi izaten dituzte ekipoak kaltetzeko.
- 56b) Informatikako adituak dira eta herrialdeentzat espioi-lana egiten dute.
- 56c) Sareak sabotagezen adituak dira, doako deiak lortzeko.
- 56d) Informatikako adituak dira, eta sistemen ahuluneak ezagutu nahi izaten dituzte, baina ez dute arrazoi ekonomikorik edo asmo txarrik izaten.

57 INFORMAZIO KONFIDENTZIALA LORTZEARREN NORBAITEK ERABILTZAILEA ENGAINATZEN DUENEAN, ERAKUNDE BATEN EDO INTERNETEKO WEB-ORRIALDE BATEN IDENTITATEA FALTSUTUZ, ZEIN HITZ ERABILTZEN DUGU INGELESEZ HORRETARAKO?

- 57a) Keylogger.
- 57b) Malware.
- 57c) Spooling.
- 57d) Phishing.

58 ZER DA SPYWARE BAT?

- 58a) Web-orrialde bat. Bertara sartzen garena, bilatzaileetan egiten ditugun bilaketa guztiak espiatzen ditu, gure gustuei buruzko informazioa jasotzeko.
- 58b) Sareko ekipo bat. Bere helburu bakarra saretik pasatzen den informazioa irakurtzea da.
- 58c) Programa bat da. Sarean enpresaren segurtasun-politikarekin bat ez datorren ekintzarik egiten bada, antzeman egiten du.
- 58d) Gure ekipoan instalatzen den programa txiki bat da, sarean egiten ditugun mugimenduak espiatzeko eta gure datuak lapurtzeko.

59 ZER EGITEN DU FIREWALL EDO SUEBAKI BATEK?

- 59a) Datuak prozesatzeko zentroan suterik badago, zerbitzarietara zabaltzea galarazten du.
- 59b) Arau batzuen arabera paketeak iragazten ditu, jatorrizko eta helburuzko IP helbideak eta horiekin lotura duen sare-zerbitzua kontuan hartuta.
- 59c) Enpresa bateko informaziorik garrantzitsuena biltegitratzen du.
- 59d) Active Directory erabiltzen dutenen saio-hasierako pasahitzak kontrolatzen ditu.

60 ZERTARAKO ERABILTZEN DA PROXY BAT, BATEZ ERE?

- 60a) Barne-saretik Internetera egiten den sarbidea kontrolatzeko.
- 60b) Bigarren mailako posta-zerbitzari moduan funtzionatzeko, zerbitzari nagusia erorita edo gainkargatuta dagoenean.
- 60c) Proxya gako mota bat da, Interneten erabiltzaileen komunikazioak enkriptatzeko erabiltzen dena.
- 60d) Proxya erredundantea den biltegitratze mota bat da, datuak gal ez daitezen erabiltzen dena.

61 DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZEIN DIRA DATU PERTSONALAK?

- 61a) Tentuz ibiltzeko moduko datuak, adibidez, erlijioa, osasuna, ezkon-bizitza eta abar.
- 61b) Identifikaturiko edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.
- 61c) Edozein pertsona fisikok, idatziz, pertsonal modura hartu eta tratatu behar dela adierazi duen informazioa besterik ez.
- 61d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

62 DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

- 62a) Datu pertsonalak automatizatuki tratatu behar dira, beti.
- 62b) Datu pertsonalak tratatzeko, ez da afektatuaren baimenik behar.
- 62c) Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean.
- 62d) Datu pertsonalak tratatzeko baimena emanez gero, baimen hori ezin da inoiz baliorik gabe utzi.

63 FITXATEGI PRIVATU BATZUETAN ERE BADIRA DATU PERTSONALAK. DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAN ZER JARTZEN DU FITXATEGI HORIEK SORTZEARI BURUZ?

- 63a) Sortu ahal izango dira baldin eta pertsona, enpresa edo erakunde titularraren legezko jarduera edo helburua lortzeko beharrezkoa bada eta pertsonak babestearren legez ezarrita dauden bermeak errespetatzen badira.
- 63b) Ezin da horrelako fitxategirik inola ere sortu, horrelako datuak fitxategi publikoetan soilik gorde daitezke-eta.
- 63c) Nahi denean sortu daitezke, datu pertsonalei edozein baldintza eta tratamendu aplikatzen zaielarik ere.
- 63d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

64 DATUAK NAZIOARTEAN MUGITZEA DELA-ETA, ZER DIO DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAK?

- 64a) Datu pertsonalik ezin da atzerrira bidali, inola ere ez.
- 64b) Datu pertsonalak beste edozein herrialdeetara bidal daitezke, aurretiaz inori abisatu beharrik gabe eta afektatuak berariaz baimenik eman beharrik gabe.
- 64c) Salbuespenak salbuespen, datu pertsonalak beste nonbaitera bidaltzekotan, han ere lege honek eskaintzen duenaren pareko babes-maila beharko dute eduki.
- 64d) Interneteko konexiorik ez duten herrialdeetara soilik transferitu daitezke datu pertsonalak.

65 DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, DATUAK BABESTEKO AGENTZIAK...

- 65a) Egoitza fisikoa Bartzelonan eduki behar du, beti.
- 65b) Zuzenbide publikoko erakundea da, berezko nortasun juridikoa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa dituena, herri-administrazioekiko askatasun osoz jarduten duena bere funtzioak gauzatzeko.
- 65c) Herri-administrazioen menpe dago, eta ez dauka ez berezko nortasun juridikorik ez eta gaitasun publiko edo pribatu osorik ere.
- 65d) Ez du izango inolako ondasunik ez bitarteko ekonomikorik ere.

66 DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ZER-NOLAKO ARAU-HAUSTEA DA DATUAK IRUZURREN ETA GEZURREN BIDEZ BILTZEA?

- 66a) Oso arina.
- 66b) Arina.
- 66c) Larria.
- 66d) Oso larria.

67 IKUS DEZAGUN ZER JARTZEN DUEN SINADURA DIGITALARI EDO ELEKTRONIKOARI BURUZKO LEGEETAN. SINADURA DIGITAL EDO ELEKTRONIKOTZAT HARTUK ODA...

- 67a) Eskuzko sinadura eskaneatuz lortzen de artxiboa.
- 67b) Zerbitzu pertsonal edo korporatiboetara iristeko erabiltzen dugun edozein pasa-hitz, esate baterako posta elektronikora iristeko.
- 67c) Gailu fisiko bat, adibidez txartela, nork darabilen eta jabea nor den okerbiderik gabe identifikatuko duena, eta hura identifikatzeko bitarteko modura erabil daitekeena.
- 67d) Sinatzen duen pertsona identifikatzeko bitarteko moduan erabili ahal diren datuen multzoa da; datu horiek elektronikoak dira, eta egon litezke beste datu batzuekin batera erregistratuta edo beste datu batzuekin lotuta.

68 SINADURA DIGITALARI EDO ELEKTRONIKOARI BURUZKO LEGEEN ARABERA, ZER DA ZIURTAGIRI ELEKTRONIKOA?

- 68a) Ziurtapen-zerbitzuak eskaintzen dituen nor edo nor agiri bat elektronikoki sinatzen du, eta agiri horrek egiten duena da sinadura egiaztatzeko datu batzuk sinatzaile batekin lotu, eta haren nortasuna baieztatu. Agiri hori da ziurtapen elektronikoa.
- 68b) Sinadura elektronikoz sinaturiko kontratu bat edo beste edozein agiri.
- 68c) Ziurtagiri bat da, ziurtatzen duena sinadura elektronikoa edo digitala darabilenak ulertzen duela erabilera horrek zer-nolako arriskuak dituen eta, inork okerkeriaz badarabil, bera egingo dela erantzule.
- 68d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

69 SINADURA ELEKTRONIKOA EDO DIGITALA 59/2003 LEGEAN DAGO ARAUTURIK. LEGE HORREN ARABERA, ZIURTAGIRI AITORTUETAN ZER AURKITUKO DUGU?

- 69a) Adierazi beharko dute sinadura elektronikoa edo digital modura emanda daudela.
- 69b) Ziurtagiria identifikatzeko kode bakarra.
- 69c) Ziurtagiria noiztik noiz arte den baliozkoa.
- 69d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

70 SINADURA ELEKTRONIKOA EDO DIGITALA 59/2003 LEGEAN DAGO ARAUTURIK. LEGE HORREN ARABERA, ZER DA SINADURA ELEKTRONIKOA SORTZEKO GAILU BAT?

- 70a) Txartelak emateko erabiltzen den gailu bat.
- 70b) Boligrafo bat.
- 70c) Sinadura sortzeko datuak aplikatzeko balio duen programa edo sistema informatiko bat.
- 70d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

71 SINADURA DIGITALA EDO ELEKTRONIKOA 59/2003 LEGEAN DAGO ARAUTURIK: "ZIURTAGIRI AITORTUAK 12. ARTIKULUAN ZEHAZTURIK DAUDEN AURRETIAZKO KONPROBAZIO GUZTIAK EGIN GABE EMATEA, ZEHAPEN-PROZEDURA HASI BAINO HIRU URTE LEHENAGOTIK, EDO –HIRU URTE EZ BADARAMA LANEAN- ZIURTAGIRI-EMALEA LANEAN HASI ZENEZ GEROZTIK EMAN DIREN ZIURTAGIRI AITORTU GEHIENAK EMAN BADIRA HORRELA..." ZER-NOLAKO ARAU-HAUSTEA DA?

- 71a) Oso larria.
- 71b) Larria.
- 71c) Arina.
- 70d) Oso arina.

72 SINADURA ELEKTRONIKOA EDO DIGITALA 59/2003 LEGEAN DAGO ARAUTURIK. ZENBATEKO ISUNA JARRIKO ZAIO ARAU-HAUSTE LARRIAK EGITEN DITUENARI?

- 72a) 100-500 eurokoa.
- 72b) 30.001-150.000 eurokoa.
- 72c) 30.000-500.000 eurokoa.
- 72d) 10 urtez erkidegorako lanean aritzea.

73 ZER ESATEN DA IZAN ZELA INTERNET-EREN AITZINDARIA?

- 73a) HTML
- 73b) MICROSOFT.
- 73c) ARPANET.
- 73d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

74 ZEIN EREDU DARABIL INTERNET-EREN FUNTZIONAMENDUAK?

- 74a) Bezeroa/Zerbitzaria.
- 74b) UML.
- 74c) Zerbitzaria/Zerbitzaria.
- 74d) Bezeroa/Bezeroa.

75 ONDORENGOETATIK, ZEINEK ESKAINTZEN DU WEB-EAN OINARRITUTAKO (WEBMAIL) POSTA ELEKTRONIKOKO ZERBITZUA?

- 75a) Hotmail-ek.
- 75b) Yahoo!Mail-ek.
- 75c) GMail-ek.
- 75d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

76 HONAKO HAUETATIK, ZEIN EZ DA INTERNETERAKO SARBIDEA EMATEKO TEKNOLOGIA?

- 76a) UMTS.
- 76b) ADSL.
- 76c) HTTP.
- 76d) FC (zuntz optikoa)

77 ZER DA TELNET?

- 77a) Telefono-deiak Interneten bidez egiteko balio duen programa bat.
- 77b) Urruneko konexioko zerbitzu bat da. Aukera ematen du saio bat hasteko eta Internetera konektatuta dagoen ordenagailu bateko baliabideetara sartzeko.
- 77c) Sarearen bidez fitxategiak transferitzeko protokolo bat da.
- 77d) Internet bidez telebista ikusteko eta bideoak banatzeko zerbitzu bat da.

78 SSL PROTOKOLOA GAUR EGUN INTERNETEN MERKATARITZA-TRANSAKZIOAK EGITEKO GEHIEN ERABILTZEN DEN PROTOKOLOA DA. ZER ESAN NAHI DUTE SIGLA HORIEK?

- 78a) Security Sounds Loud.
- 78b) Secure Sockets Layer.
- 78c) Several Server Lounge.
- 78d) Segurtasun Sakoneko Linea

79 ZER DA BUSINESS INTELLIGENCE?

- 79a) Enpresa edo erakunde baten esparruan erabiltzen den edozein aplikazio edo programa.
- 79b) Enpresa edo erakunde batek ondo funtzionatzeko nahitaezkoak dituen aplikazioak.
- 79c) Informazioa sortzera eta kudeatzera bideratutako metodologia. aplikazio, jardunbide eta gaitasunen multzoa, erakunde bateko erabiltzaileei erabakirik onenak hartzen laguntzen diena.
- 79d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

80 HAUETATIK, ZEIN EZ DA BUSINESS INTELLIGENCE EREMUKO TEKNOLOGIA?

- 80a) Word Wide Web.
- 80b) Data Warehouse.
- 80c) Data Mining edo datu-meatzaritza.
- 80d) Aginte-koadroa.

81 HAUETATIK, ZEIN DA BUSINESS INTELLIGENCE EREMUKO TEKNOLOGIA?

- 81a) WAP garapena.
- 81b) HTML diseinua.
- 81c) OLAP analisia.
- 81d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

82 ZER ESAN NAHI DBIMM-EN (BUSINESS INTELLIGENCE MATURITY MODEL) 2. FASEAN EGOTEAK?

- 82a) Data Warehouse motako teknologiak aplikatu direla.
- 82b) Ez dagoela Business Intelligence-rik, baina datuak eskuragarri daudela.
- 82c) Ez dagoela Business Intelligence-rik, eta datuak ez daudela eskuragarri.
- 82d) Business Intelligence jadanik aplikatzen dela modu zabalean eta heldutasun-maila batean.

83 BUSINESS INTELLIGENCE TEKNOLOGIAK ESKAINTZEN DUEN OPEN SOURCE MOTAKO SOLUZIO NABARMENETAKO BAT HAU DA:

- 83a) Penthouse.
- 83b) Pentagram.
- 83c) Pentium.
- 83d) Pentaho.

84 ZEIN DA DATA WAREHOUSE BATEN ARKITEKTURA KORPORATIBOAN IKUSPEGI NAGUSIENETAKO BAT?

- 84a) Enterprise Bus Architecture edo MD (Multidimensional Architecture).
- 84b) Corporate Information Factory edo Enterprise Data Warehouse.
- 84c) Enterprise Data Warehouse 2.0.
- 84d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

85 NOLA DEFINITU GENEZAKE ITIL?

- 85a) IT zerbitzuen era guztietako hornitzaileek erabiltzen dituzten "jardunbide onen" multzoa da. Metodo sistematikoa zehazten du IT zerbitzuen kalitatea bermatze aldera.
- 85b) Informazio-teknologiaren arloan lan egiten duten enpresek beren jarduera egin ahal izateko bete behar dituzten arau batzuk dira.
- 85c) Sare-protokolo bat da, sarean paketeak bideratzen dituena.
- 85d) Enpresa pribatu bat da, eta bere lana da informazio-teknologiekin lotura duten enpresen artean zein dauden hobeto prestatuta aztertzea.

86 ENPRESA BATEK "JARDUNBIDE ONAK" ERABILTZEAK BEZEROARENTZAT EDO ERABILTZAILEARENTZAT DITUEN ALDE ONEN ARTEAN, HAUEK NABARMENDU AHAL DIRA:

- 86a) Zerbitzuak hobeto azalduta daude, bezeroaren hizkuntzan eta zehaztasunez.
- 86b) Kalitatearen kudeaketa hobea, erabilgarritasuna, fidagarritasuna eta zerbitzuen kostua.
- 86c) Informazio-teknologiaren erakundearekin komunikazio hobea dago, hitzartutako harreman-puntuen bidez.
- 86d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

87 ITIL-EN ARABERA, ZER DA ZERBITZU BAT?

- 87a) Erakunde ziurtatzaile eta independente bat da, eta enpresako prozesuek heldutasun-maila jakin bat lortu duten adierazten du.
- 87b) Enpresak egiten duen edozein jarduera da, bezeroentzat zein barruko langileentzat.
- 87c) Bezeroei balioa emateko bide bat da; bezeroei lortu nahi dituzten emaitzak eskaintzen zaizkie, berariazko kostu edo arriskurik izan beharrik gabe.
- 87d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

88 ITIL-EN ARABERA, HAUETATIK ZEIN EZ DA PROZESU BATEN EZAUGARRIA?

- 88a) Emaitza zehatzak ditu.
- 88b) Aldez aurretik zehaztutako iraupena du.
- 88c) Neurtu ahal dira, emaitzetara bideratuta baitaude.
- 88d) Bezeroei edo tartean dauden alderdiei emaitzak eskaintzen dizkiete.

89 ITIL-EK ZERBITZUAREN BIZI-ZIKLOAK FASE HAUEK DITUELA ADIERAZTEN DU:

- 89a) Analisia, diseinua, garapena, ezarpena eta probak.
- 89b) Estrategia, diseinua, trantsizioa, operazioa eta etengabeko hobekuntza.
- 89c) Hasierako fasea, fase ertaina, azken fasea.
- 89d) Irakurketa, transakzioa, frogaketa eta egiaztatpena.

90 ZER DA NEGOZIO-KASUA?

- 90a) Emaitza onik ematen ez duen negozio bat da.
- 90b) Negozioa egiteko merkatuan antzeman dezakegun edozein aukera da.
- 90c) Bezeroei balioa emateko bide bat da; bezeroei lortu nahi dituzten emaitzak eskaintzen zaizkie, berariazko kostu edo arriskurik izan beharrik gabe.
- 90d) Erabakiak hartzeko, euskarria emateko eta planifikazioa egiteko tresna bat da, negozio-ekintza batean gerta daitezkeen ondorioak aurreikusten dituena.

91 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA

- 91a) 8/1997 Legearen helburua, Nazioko Osasun Zerbitzuko pazienteen Eskubide eta Betebeharren Karta da
- 91b) 8/1997 Legearen helburua, OSAKIDETZAko paziente eta erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharren Karta da
- 91c) 8/1997 Legearen helburua, Espainiako antolamendu sanitarioa da
- 91d) 8/1997 Legearen helburua, Euskadiko antolamendu sanitarioa da

92 EUSKADIKO SISTEMA SANITARIOAN HERRITARREI PARTE HARTZEKO AUKERA EMATEKO

- 92a) Herritarrek parte hartzeko Batzordeak sortuko dira
- 92b) Herritarrek parte hartzeko Kontseiluak sortuko dira
- 92c) Herritarrek parte hartzeko Elkargoak sortuko dira
- 92d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena

93 EUSKAL ADMINISTRAZIO SANITARIOARI DAGOZKION JARDUERAK EGOKIRO ANTOLATU ETA ORDENATZEKO

- 93a) Euskadiko Osasun Sistema sortu da
- 93b) Parte hartzeko Kontseilua sortu da
- 93c) Osasun Sistema Nazionala sortu da
- 93d) Aurreko aukera bat ere ez da zuzena

94 OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

- 94a) Zuzenbide pribatuak zuzendutako Ente publikoa da
- 94b) Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde instituzionala da
- 94c) Erakunde publiko-pribatu bat da
- 94d) Euskadiko osasun-zerbitzuak elkartzen dituen Erakunde pribatua da

95 EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ZUZENDARITZA-ANTOLAKUNTZA, HONI DAGOKIO

- 95a) Osakidetzari
- 95b) Bere Administrazio Kontseiluari
- 95c) Presidenteari eta Administrazio Kontseiluari
- 95d) Errektoreari

96 OSAKIDETZAREN INTERES OROKORREKO HELBURUEN ARTEAN EZ DAGO

- 96a) Irakaskuntza sustatzea
- 96b) Pertsonal EZ-sanitarioaren prestakuntza sustatzea
- 96c) Ikerkuntza + Garapena + Berrikuntza arloetan inbertitzea
- 96d) Bere osasun-baliabideen garapena sustatzea

97 UZTAILAREN 18KO 175/1989 DEKRETUAK

- 97a) Nazioko Osasun Zerbitzuko pazienteen Eskubideen Karta onartzen du
- 97b) Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen du
- 97c) Espainiako antolamendu sanitarioa arautzen du
- 97d) Euskadiko antolamendu sanitarioa arautzen du

98 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA

- 98a) Indarrean dagoen araudiak ez du onartzen familiako medikua aukeratzeko eskubidea
- 98b) OSAKIDETZAko paziente batek errespetu handienez artatua izateko eskubidea dauka araudiak horrela jasotzen duelako
- 98c) OSAKIDETZAko erabiltzaile batek, zalantza izanez gero, OSAKIDETZAko beste bigarren mediku baten iritzia eskatzeko eskubidea dauka
- 98d) OSAKIDETZAko paziente batek kexak aurkezteko eskubidea dauka

99 EUSKADIKO KRONIKOTASUN ESTRATEGIAK EUSKAL OSASUN SISTEMA ERALDATU NAHI DU, ETA ESTRATEGIA HORI GARATZEKO

- 99a) Ehun esku-hartze edo proiektu jarri dira martxan, eta horiek guztiak batera aurrerapen esanguratsua izan daitezke paziente kronikoa artatzeko abordatze proaktiboan
- 99b) Lau esku-hartze edo proiektu jarri dira martxan, eta horiek guztiak batera aurrerapen esanguratsua izan daitezke paziente kronikoa artatzeko abordatze proaktiboan
- 99c) Berrogeita hamar esku-hartze edo proiektu baino gehiago jarri dira martxan, eta horiek guztiak batera aurrerapen esanguratsua izan daitezke paziente kronikoa artatzeko abordatze proaktiboan
- 99d) Hamalau esku-hartze edo proiektu jarri dira martxan, eta horiek guztiak batera aurrerapen esanguratsua izan daitezke paziente kronikoa artatzeko abordatze proaktiboan

100 KRONIKOTASUNAREN ESTRATEGIARAKO BULEGOAK PERTSONAL HAU DAUKA

- 100a) Bulegoko bi arduradun
- 100b) Lanaldi osoko hainbat teknikari (O+Berri eta Kalitateko Zuzendariorde)ta)
- 100c) Bulegoko arduradun bat
- 100d) Ez dago horrelako organorik

PREGUNTAS RESERVA

**101 ZER EGITEN DU SQL INSTRUKZIO HONEK?:
“DROP TABLE MENDEKO CASCADE”**

- 101a) Mendeko izeneko taula bat ezabatzen du, eta taularen murrizketa eta ikuspegi guztiak ere baztertzen ditu.
- 101b) Mendeko izeneko taula bat ezabatzen du, baina lotutako murrizketarik eta ikuspegiarik ez badu bakarrik.
- 101c) Mendeko izeneko taula bat ezabatzen du, eta taularen murrizketa eta ikuspegi guztiak ere aldatzen ditu.
- 101d) Mendeko izeneko taula bat ezabatzen du, baina ez ditu aldatzen taularen murrizketak eta ikuspegiak.

**102 ZER EGITEN DU SQL INSTRUKZIO HONEK?:
“ALTER TABLE ENPRESA.LANGILEA ADD LANPOSTUA VARCHAR(12)”**

- 102a) Erregistro berri bat sartzen du ENPRESA.LANGILEA taulan.
- 102b) ENPRESA.LANGILEA taulako erregistro bat ezabatzen du.
- 102c) Lanpostua izeneko taula bat sortzen du, ENPRESA.LANGILEA taulari lotuta.
- 102d) ENPRESA.LANGILEA taularen egitura aldatzen du.

103 WINDOWS 7AN, ZER DA “TEMA”?

- 103a) Informazio interaktiboa trukatzea.
- 103b) Ekipoan asmo txarreko sarbideak galarazten dituen.
- 103c) Mahaigaineko ikono bat.
- 103d) Ekipoak dakartzan irudi, kolore eta soinuen multzoa.

104 OSI EREDUAREN ZEIN GERUZAK EMATEN DITU BIDERATZE-ZERBITZUAK?

- 104a) Garraio-geruzak.
- 104b) Sare-geruzak.
- 104c) Aplikazio-geruzak.
- 104d) Datuen loturaren geruzak.

105 DBLO-REN ARABERA, “ARRAZOI FORMALAK DIRELA ETA, INTERESDUNAK BERE DATU PERTSONALAK ZUZENTZEKO ETA INDARRIK GABE UZTEKO EGINDAKO ESKABIDEA AINTZAKOTZAT EZ HARTZEA, ESKABIDE HORI LEGEZ BIDEZKOA DENEAN” NOLAKO ARAU-HAUSTEA DA?

- 105a) Oso arina.
- 105b) Arina.
- 105c) Larria.
- 105d) Oso larria.

106 SAREAREN BIDEZ FITXATEGIAK BIDALTZEKO AUKERA ESKAINI ZUEN LEHENEGO PROTOKOLOETAKO BAT HAU IZAN ZEN:

- 106a) HTML.
- 106b) UML.
- 106c) FTP.
- 106d) WWW.

107 ZEIN DA INFORMAZIO-TEKNOLOGIEN ZERBITZUEN KUDEAKETA-ERAKUNDEENTZAT BERARIAZ SORTUTAKO ISO ESTANDARRA?

- 107a) ISO/IEC 20000
- 107b) ISO/IEC 12000
- 107c) ISO/IEC 3000
- 107d) ISO/IEC 48000

108 INFORMATIKAN ZEIN DA INFORMAZIOKO GUTXIENENKO UNITATEA?

- 108a) Bit.
- 108b) Byte.
- 108c) Baudia.
- 108d) MegaByte.

109 MIKROPROZESADORE BATEN ARKITEKTURAN EGON BEHAR DUTEN ELEMENTUEN ARTEAN HAU DAGO...

- 109a) Disko gogorra.
- 109b) Txartel grafikoa.
- 109c) Unitate aritmetiko-logikoa (UAL).
- 109d) Oinarri-plaka.

110 ZER DA SISTEMA BANATU BAT?

- 110a) Elkarren artean konektatuta dauden eta erabiltzaileei zerbitzu komunak ematen dizkien ordenagailu autonomoen multzo bat.
- 110b) Monitore asko dituen PC bat.
- 110c) Teklatu eta sagu ugari dituen PC bat.
- 110d) Sarera hainbat kokapenetatik sartzeko sistema bat.

OSAKIDETZA

2012ko urtarilaren 9koa 15/2012
Erabakiaren bidez egindako
Oposaketa-Lehiaketarako deia (EHAA
18 Zkia. 2012ko urtarilaren 26koa)

Concurso-Oposición convocado
por Resolución nº 15/2012 de 9 de
enero de 2012 (BOPV Nº 18 de 26 de
enero 2012)

KATEGORIA: *INFORMATIKAKO TEKNIKARIA*

CATEGORÍA: TECNICO INFORMATICA

Proba eguna / Fecha prueba:

2012ko uztailaren 13a / 13 de julio de 2012

B Eredua / Modelo B

1 EN WINDOWS 7 PODEMOS ENCONTRAR MULTITUD DE MEJORAS, PERO PODRÍAMOS DESTACAR QUE...

- 1a) Ya no tiene barra de tareas.
- 1b) Tiene dos papeleras de reciclaje.
- 1c) Los usuarios disponen de mayor capacidad de almacenamiento para todo tipo de archivos.
- 1d) Los conflictos entre hardware y software son prácticamente inexistentes.

2 UNA DE LAS NOVEDADES DE LA BARRA DE TAREAS DE WINDOWS 7 ES...

- 2a) Que permite ubicar en ella cualquier programa haciendo clic y arrastrándolo hacia la misma.
- 2b) Que ya no existe.
- 2c) Que puede cambiar de color en función del usuario que inicie sesión.
- 2d) Que puede ser ubicada donde prefiera el usuario.

3 UNA DE LAS NUEVAS CARACTERÍSTICAS DE WINDOWS 7 ES “WINDOWS TOUCH”, ¿PARA QUE SIRVE?

- 3a) Nos permite “tocar” opciones de administración avanzada que antes no estaban accesibles.
- 3b) Evita que usuarios malintencionados accedan al equipo.
- 3c) Permite una interacción sencilla con el usuario mediante pantalla táctil.
- 3d) Para hacer funciones de control parental al acceder a Internet.

4 EN EL PANEL DE CONTROL DE WINDOWS 7, DENTRO DE LA CATEGORÍA DE “SISTEMA Y SEGURIDAD” ENCONTRAREMOS...

- 4a) Las cuentas de usuarios.
- 4b) El firewall de Windows.
- 4c) Programas y características.
- 4d) Todas las respuestas anteriores son correctas.

5 SI EN WINDOWS 7 INICIAMOS SESIÓN CON UNA CUENTA CON PERMISOS DE ADMINISTRADOR Y ACCEDEMOS MEDIANTE EL PANEL DE CONTROL A “CUENTAS DE USUARIO” PODREMOS...

- 5a) Cambiar las contraseñas de las cuentas de usuario.
- 5b) Cambiar la imagen que aparece durante el inicio de sesión.
- 5c) Cambiar el nombre de las cuentas de usuario.
- 5d) Todas las respuestas anteriores son correctas.

6 ¿QUÉ SON LOS “GADGETS” EN WINDOWS 7?

- 6a) Documentos de texto.
- 6b) Accesos directos a nuestros programas favoritos.
- 6c) Pequeñas aplicaciones desarrolladas para ejecutar una función determinada.
- 6d) Es un almacén donde se pueden guardar todo tipo de archivos.

7 LAS REDES IDENTIFICADAS POR WINDOWS SERVER 2008 PERTENECEN A UNO DE LOS SIGUIENTES TIPOS:

- 7a) Red segura y Red insegura.
- 7b) Red corporativa y Red no corporativa.
- 7c) Red de trabajo, Red del hogar y Red de grupo de trabajo seguro.
- 7d) Red de dominio, Red privada y Red pública.

8 UTILIZANDO WINDOWS SERVER 2008, LOS DOMINIOS ACTIVE DIRECTORY PUEDEN FUNCIONAR...

- 8a) Sin controlador de dominio.
- 8b) Con un único controlador de dominio, pero es posible y aconsejable disponer de varios.
- 8c) Con un único controlador de dominio, ya que es imposible tener más de uno en el mismo dominio.
- 8d) Con un máximo de dos controladores de dominio en cada dominio.

9 WINDOWS SERVER 2008 PERMITE LA UTILIZACIÓN DEL SIGUIENTE SISTEMAS DE RESOLUCIÓN DE NOMBRES:

- 9a) El sistema de nombres de dominio (DNS)
- 9b) El servicio de nombres Internet de Windows (WINS)
